

Erakusketa / Exposición / Exhibition

2019.11.09 - 2020.02.16

WYDZIAŁ CZAJ

Erakusketa-aretoa
Sala de exposiciones
Exhibition hall



TABAKALERA



KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA

CENTRO
INTERNACIONAL
DE CULTURA
CONTEMPORÁNEA

Donostia/San Sebastián



SARRERA INTRO

Ez da ezohikoa baieztatzea arte-erakusketak ezagutzaren ekoizpen eta dibulgaziorako funtsezko espazio bihurtu direla. Askotan, munduaren zati handi bat zeharkatzen duen erakunde eta museoen sarean, sakontzeko gonbita luzatzen diguten proposamen artistikoekin egiten dugu topo; estrategia ezberdinen bitartez, gaurkotasunak sorrarazten dizkigun dilemak jorratzea proposatzen digute. Oro har, uste dugu gure pertzepzio-sistemaren bidez hautematen dugunak ordena naturalari erantzuten diola, eta, beraz, modu espontaneo eta berezkoan ikusi, erreparatu eta entzuten dugula. Baina hori ez dator bat errealtatearekin. Ibiltzen, hizkuntzaren bidez mintzaten eta mahaiari modu zuzenean jokatzeko ikasten dugun bezalaxe, ikusten eta erreparatzen ikasten dugu, gure aurrean gertatzen dena bereizten eta ulertzen.

Tabakaleran gustatzen zaigu pentsatzea askotariko erak daudela gure jardueraprograma osatzen duten ekimenen multzora iristeko, eta ahaleginak egiten ditugu interesdunak topo egin dezan hizkuntza eta sentsibilitate ugariarekin. Horrez gain, multzo heterogeneo horretan harremanak lotzen dituzten harietan pentsatzea ere gogoko dugu. Ez da kointzidentzia erakusketaproiektu berri hau zineman oinarritzen den jardueraprograma batekin batera aurkeztu izana, eta, saio batzuetan, Elías Querejeta Zine Eskolako ikasleak izatea protagonista; ez da kointzidentzia orain aretoan aurkezten den proiektuetako bat Tabakalerak eskaintzen duen egonaldi-programari esker gauzatu izana; ez da kointzidentzia

artistek proposatzen dizkiguten edukiak publikoarengana eta familiengana hurbiltzen ahalegintzen den bitartekaritza-programa bat existitzea; eta ez da kointzidentzia erakusketaren sarrerari Ubik sormen-liburutegiak egindako hautaketa bibliografiko bat egotea, erakusketadenboraldi berri honetarako gai eta edukietan sakontzeko aukera ematen duena.

Beraz, Tabakalerako erakusketak bisitatzea aukera bat izan daiteke artista garaikideek eskaintzen dituzten proposamenak ikusteko, baita proposamen horiek gure ingurunearekin eta gertuko eta berehalako errealtatearekin nolako harremana duten aztertzeko ere.

ES

Afirmar que las exposiciones de arte se han convertido en espacios fundamentales para la producción y la divulgación del conocimiento no es nada extraordinario. A menudo nos encontramos, en la red de instituciones y museos que atraviesa gran parte del mundo, con propuestas artísticas que nos invitan a profundizar, por medio de diversas estrategias, en aquellos dilemas que nos plantea la actualidad. Por lo común, tendemos a pensar que, aquello que recibimos a través de nuestro sistema perceptivo, responde al orden de lo natural y que, por lo tanto, vemos, observamos y escuchamos siempre de un modo espontáneo e innato. Nada más lejos de la realidad. Del mismo modo que aprendemos a caminar, a expresarnos a través del lenguaje o a comportarnos de una forma concreta en la mesa, aprendemos a ver y a mirar, a distinguir y a comprender lo que acontece frente a nosotros.

En Tabakalera nos gusta pensar nuestro programa de actividades como un conjunto de iniciativas al que es posible acceder de muy diversas formas, y tratamos de favorecer que la persona interesada pueda encontrarse con una multiplicidad de lenguajes y sensibilidades. Pero también nos gusta pensar en los hilos que tratan de trenzar relaciones entre este conjunto heterogéneo. No es una coincidencia que este nuevo proyecto expositivo se presente junto a un programa de actividades que se apoya de manera especial en el cine y que, en algunas de esas sesiones, el alumnado de Elías Querejeta Zine Eskola sea el que tome el protagonismo; que uno de los proyectos que ahora se presentan en sala haya sido elaborado gracias al programa

de residencias que Tabakalera ofrece; que exista un programa de mediación que trata de acercar los contenidos que nos proponen los artistas al gran público y a las familias; o que el hall de la exposición esté ocupado por una selección bibliográfica realizada desde la biblioteca de creación Ubik, que permite ahondar en las temáticas y los contenidos para esta nueva temporada de exposiciones.

Visitar las exposiciones de Tabakalera puede ser, por tanto, una oportunidad para atender las propuestas que nos lanzan los artistas contemporáneos y ver cómo estas se relacionan con nuestro entorno, con nuestra realidad más inmediata y cotidiana.

KOTOIAREN ALGORITMOAK ALGORITMOS DEL ALGODÓN

Filipa César

Ehungintza-ekoizpenean txartel zulatua erabiltzea funtsezkoa izan zen ordenagailuaren asmakuntzarako. Beraz, esan daiteke kode digitala gertuago dagoela ehungintzatik idazkeratik baino. Testuinguru kolonialetan, ehunetako marrazkiek kolonizatzaileentzat irakurtezinak ziren mezuak jasotzen zituzten maiz. Ideia horretatik abiatuta, Filipa César artistak (Oporto, 1975) bi kontzeptu jartzen ditu harremanetan: kreolizazio-prozesuetan (termino horrek hizkuntza konposatuak egiten die erreferentzia, hizkuntza talde anitz eta heterogeneoen arteko harremanetatik sortuak) hizkuntza kolonialak bereganatu eta aldatzeko modua, eta mezu horien ezkutuko trukea ehungintza-ekoizpenean. Gainera, artistak lan-metodologiatzat hartzen du kreolizazio-prozesua, eta horrek aukera ematen dio bere obra sortzerakoan hainbat hizkuntza eta sentsibilitate erabiltzeko.

Hausnarketa horretatik sortu zen bere azken proiektua, *Looming Creole**, erakusketa honetako lan nagusia. Instalazio eta entsegu filmikoa da, eta bertan, artistak hizkuntza kreolleen eta Ginea Bissauko ehungintza teknikaren arteko harremana garatzen du. Adierazi behar da proiektu hori ikerketa

El uso de tarjetas perforadas en la producción textil fue fundamental para el surgimiento de la computadora. Por lo tanto, se podría decir que el código digital es algo más cercano a la práctica de tejer que al acto de escribir. En contextos coloniales, los dibujos textiles contenían, a menudo, mensajes indescifrables para los colonizadores. Partiendo de esta idea, la artista Filipa César (Oporto, 1975) pone en relación el modo en que las lenguas coloniales son apropiadas y alteradas en los procesos de criollización (término que hace referencia a las lenguas compuestas, surgidas del contacto entre grupos lingüísticos diversos y heterogéneos) y el intercambio furtivo de estos mensajes en la producción textil. Además, la idea de criollización es asumida por la artista como metodología de trabajo, y le permite adoptar lenguajes y sensibilidades múltiples en el proceso de elaboración de su obra.

De esta reflexión surge el último proyecto realizado por Filipa César, *Looming Creole**, el trabajo central de esta exposición. Se trata de una instalación y un ensayo fílmico en el que la artista desarrolla la relación entre las lenguas criollas y las técnicas de tejer en Guinea-Bissau. Cabe señalar que este proyecto es el resultado



Quantum Creole,
2019

kolektiboko lan baten emaitza dela, zeinak mugimenduan dauden irudi-formatu desberdinak hartzen baititu barnean, hala nola bideoak, 16 mm-ko filma eta 3D animazioa. Horrela, kreolizazioaren dinamika testuinguru historikoetan eta errealitate ezberdinetan aplikatu daiteke, eta hizkuntzaren esperientzia aldatzeko duen gaitasuna azpimarratzen du.

Filipa César artistak gaztetatik izan du Guinea Bissau herrialdearenganako interesa. Bere lehen bidaietan, César herrialdearen zinemaren jatorria ikertzen hasi zen, eta bereziki, baldintza atmosferiko latzen eta herrialdeko ezegonkortasun politikoaren ondorioz kaltetuta zegoen zinema-artxibo bat. Horri esker, César Guinea Bissauko Afrikaren Askapenerako Mugimenduaren, Amílcar Cabral (1924-1973) buruzagiak sustatutakoaren, zinemaren jatorriak ikertzen hasi zen, eta *Luta ca caba inda* (Borroka ez da oraindik amaitu) proiektuan parte hartu zuen. Proiektu hau ibilbide luzeko lan kolektiboa da, trazatu genealogiko bat marrazten duena Guinea Bissauko zinema aktibistaren jatorri eta promesetan barrena. Bere lehen film luzearekin amaitzen da ibilbidea: *Spell Reel* (2017).

de un ejercicio de investigación colectiva que incorpora diversos formatos de imágenes en movimiento como el vídeo, la película en 16mm y la animación 3D. De esta manera, la dinámica de la criollización se aplica a contextos históricos y realidades dispares, y reitera su capacidad para alterar la experiencia del lenguaje.

El interés de Filipa César por Guinea-Bissau se remonta a una edad temprana. Ya en sus primeros viajes, César comenzó a desentrañar el origen del cine en este país y, especialmente, la existencia de un archivo cinematográfico que se encontraba muy deteriorado debido tanto a las difíciles condiciones atmosféricas como a la inestabilidad política del país. Gracias a ese archivo, César comienza a investigar los orígenes del cine del Movimiento de Liberación Africana en Guinea-Bissau, promovido por el líder Amílcar Cabral (1924-1973), y se embarca en el proyecto *Luta ca caba inda* (La lucha aún no ha terminado). Este es un trabajo colectivo de largo recorrido que traza un itinerario genealógico por los orígenes y las promesas del cine activista en Guinea-Bissau, y que culmina con su primer largometraje, *Spell Reel* (2017).

Tabakaleran ikusgai egongo den erakusketak artistaren aurreko beste bi lan ere hartzen ditu barne. Horietako lehenak, *The Embassy* (2011) izenekoak, memoria sortzeko modalitateak eta dinamikak aztertzen ditu. Portugaldar kolonoen argazkiak eta memoriak dituen argazki-album bat erakusten du, 1940ko eta 1950eko hamarkadetako argazkiak biltzen dituena. Aldi berean, Ginea Bissauko artxibozain batek argazki-album hori iruzkintzen du, eta bi herrialde horiei buruzko hainbat geruzatako kontakizun baten abiapuntu gisa balio du. Bestalde, *Cacheu* (2012) Joana Barriosek interpretatutako konferentzia bat da; lan hori gaur egun Cacheuko gotorlekuan gordeta dauden lau estatua kolonialen inguruko da. Gotorleku hori portugaldarrek 1588an Ginea Bissauan eraiki zuten lehen bastioietako bat izan zen. Barriosek estatua horiek agertzen diren askotariko testuinguruak aztertzen ditu, gatazka sinbolikoak gogora ekartzeko.

Hiru proiektu horien bidez, Filipa Césarrek bidaia bat proposatzen digu; munduari begiratzeko eta bertan egoteko dugun modua ezbaian jartzen duen geografia batean zeharreko bidaia, hain zuzen ere.

*Ekoizpen berri hau Haus der Kulturen der Welt (Berlin), Museu Calouste Gulbenkian (Lisboa) eta Tabakaleraren (Donostia) arteko lankidetzatik sortu da.

La exposición que se presenta en Tabakalera también acoge dos trabajos anteriores de la artista. El primero de ellos, *The Embassy* (2011), se centra en las modalidades y las dinámicas de producción de la memoria. Muestra un álbum de fotos con fotografías y memorias de un colono portugués realizado en las décadas de 1940 y 1950. Al mismo tiempo, este álbum fotográfico es comentado por un archivero guineano y sirve como punto de partida de una narración -dividida en capas- sobre la historia de estos dos países. Por su parte, *Cacheu* (2012) es una conferencia, interpretada por Joana Barrios, que gira en torno a cuatro estatuas coloniales que se conservan hoy en la Fortaleza de Cacheu, uno de los primeros baluartes construidos por los portugueses en 1588 en Guinea-Bissau. Barrios evoca conflictos simbólicos rastreando los diferentes contextos en los que aparecen las estatuas.

A través de estos tres proyectos, Filipa César nos propone un viaje por una geografía que compromete nuestra manera de mirar y de estar en el mundo.

*Esta nueva producción se ha realizado en colaboración entre Haus der Kulturen der Welt (Berlín), Museu Calouste Gulbenkian (Lisboa) y Tabakalera (Donostia / San Sebastián).

Laguntzailea / Colaborador:



BIOGRAFIA BIOGRAFÍA

Filipa César



Filipa César Berlingen bizi den zinemagile eta artista da. Mugimendu-irudiaren eta bere harreraren arteko muga lausoan dago interesatuta, dokumentalaren fikzio-dimentsioan eta praktika zinematografikoaren ekonomia, politika eta poetikan. Bere lanak medioa erabiltzen du, halaber, historizismoari aurre egiteko narratibak erakusteko.

2011tik aurrera, Césarrek Ginea Bissauko zinemaren jatorriari buruz ikertzen du, bere imaginario eta potentziei buruz; ikerketa *Luta ca caba inda* proiektu kolektiboan garatu zuen.

Living Archive (2011-13) eta *Visionary Archive* (2013-15) ikerketa-proiektuetan hartu zuen parte, biak Arsenal – Zine eta Bideo Arte Institutuak antolatutak. Berriki, zinema-jaialdi hauetan hartu du parte: Kurzfilmtage Oberhausen, 2013-16; Curtas Vila do Conde, 2012-2015; Forum Expanded – Berlinale, 2013-2016; IFFR, Rotterdam, 2010, 2013 eta 2015. Eta proiektzio eta erakusketei dagokienez: Haus der Kulturen der Welt, Berlin, 2011-2015; Kunstwerke, Berlin, 2013; Futura, Prague 2015; Tensta konsthall, 2015.

Filipa César es una artista y cineasta que vive en Berlín. Está interesada en los difusos límites entre la imagen en movimiento y su recepción, la dimensión ficcional del documental y la economía, política y poética inherentes a la práctica cinematográfica. Su trabajo también utiliza el medio para exponer narrativas de resistencia frente al historicismo.

Desde 2011, César ha investigado sobre los orígenes del cine de Guinea-Bissau, sus imaginarios y potencias, y ha desarrollado esa investigación en el proyecto colectivo *Luta ca caba inda*.

Fue una de las participantes de los proyectos de investigación *Living Archive* (2011-13) y *Visionary Archive* (2013-15), los dos organizados por Arsenal – Instituto para Cine y Video Arte, Berlín. Últimamente ha participado en los siguientes festivales: Kurzfilmtage Oberhausen, 2013-16; Curtas Vila do Conde, 2012-2015; Forum Expanded – Berlinale, 2013-2016; IFFR, Rotterdam, 2010, 2013 y 2015, así como diferentes exposiciones y proyecciones: Haus der Kulturen der Welt, Berlin, 2011-2015; Kunstwerke, Berlin, 2013; Futura, Prague 2015; Tensta konsthall, 2015.

TABAKALERA



KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA

CENTRO
INTERNACIONAL
DE CULTURA
CONTEMPORÁNEA

Donostia/San Sebastián